



Glosak
ANJEL LERTXUNDI


MARTIN UGALDE

RI

ANDOAINGO UDALA

**IX. RIKARDO ARREGI
KAZETARITZA SARIA
1997**


MARTIN UGALDE



Andoaingo Udalak,
esker onez,
liburu hau eskaintzen dio
idazle eta kazetari andoaindarrari,
IX Rikardo Arregi
Kazetaritza Sariaren
Ohorezko Aipamenaren osaigarri

OHOREZKO AIPAMENA

Ondorengo testua
96/97ko Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren
Epaimahaiak bartutako
Azken Erabakiaren zati bat da.



KULTURA SAIALA
Fitxarria: Peltinerrako Sibilordetza

Eusko Jaurlaritzako
Hizkuntza Politikarako Sailordetzak
diruz lagundutako argitalpena



Argitaratzailea: Andoingo Udala
Euskararen Normalkuntzarako Lansaila

© "Martin Ugalde: leialtasun baten historia" glosena:
Anjel Lertxundi

© Argitalaldi honen: ANDOINGO UDALA
Azala, disainua eta maketazioa: Junkal Moxcaile
Argitalaldiaren ardura: ALBERDANIA, S.L.

ISBN: 84 - 921732 - 1 - 1

Lege Gordailua: S.S. 680/97

Inprimatzailea: ITXAROPENA, S.A.

Liburu honen lehen argitaraldia 2.750 alekoa izan da.

IX. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariko epaimahaiak, hainbat aukera aztertu eta gero, ahobatez erabaki du aurtengo *Ohorezko Aipamena* Martin Ugalde jaunari egitea.

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren baitan orain arte bi urtetan egin izan da ohorezko aipamena. Lehen urtean egin zen lehenbizikoa, 1989an alegia, eta zazpi urte geroago, iaz, bigarrena. "*Euskalduna/Herria*" aldizkariarentzako izan zen lehenengoa. Bigarrena, berriz, iazkoa, 1936an piztutako gerra zibilaren garaiko eta aurreko euskal kazetarici egin zitzaien.

Aipatutako bi kasutan euskal kazetaritzaren iragana eta etorkizuna uztartu nahi izan ziuuzten Epaimahaiak eta Andoingo Udalak. Eta ez dago esan beharrik arrazoi hori bera dela aurtengo erabakiaren zutoin sendoenetakoa.

Nolanahi ere, Martin Ugalde jaunari *Ohorezko Aipamena* egiteko erabakia hartzeko orduan

MARTIN UGALDE: LEIALTASUN BATEN HISTORIA

GLOSAS

ANJEL LERTXUNDI

baliatu eta azterturiko pisuzko irizpide eta arrazoi ugarien artean, hiru azpimarratu nahi lituzke epaimahaiak:

1.—Erbestean nahiz Euskal Herriratu ondoren, Martin Ugalderen kazetari-senak lekuan lekuko izaten jakin du.

2.—Martin Ugalde aitzindari izan da euskal kazetaritzaren profesionaltasun-bidean: euskal kazetaritzak egitura iraunkorrek behar zituela ikusirik, eskergarria da langintza horri eskaini dion ahalegina.

3.—Martin Ugaldek garai bateko euskal kazetaritzaren ekarria eta gaurko kazetaritza berriaren premiak uztartu ditu, ekimen eraginkor eta doan batez.

Andoainen, mila bederatziehun eta laurogeitahamazpiko ekainaren hogeita zortzian.

IX. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIKO
EPAIMAHAIJA

MAHAIBURUA

Jose Antonio Pérez Gabarain
Andoaingo Alkatea

MAHAIKIDEAK

Miren Azkarate, Allande Boutin,
Anjel Lertxundi, Koldo Ordozgoiti
Iñaki Zabaleta

IDAZKARIA

Patxi Baztrrika

ASKATASUNA

“Denon askatasunak egiten gaitu libre”, idatzi du Martin Ugaldek bere oroitzapenen letror-bazterren batean.

Amerika eta eskaldunak liburu-sailerako pres-tatu zuen bere oroitzapen autobiografikoen tes-tuak, berriz, “En busca de una patria en libertad” du izenburua: *bilaketaz* uztarturiko *aberria* eta *askatasuna* hitzen arragoan zaildutako konpromezuak egin du Martin Ugalde gizon aske. Eta gizon askea ez da mututu, isiltasunak erosotasuna besterik ez zekarkion garaietan. Ez da hainbeste urterako militantziaren loruretara lotu, bere uste eta iritziekiko leialtasunak hala eskatu dionean. Ez du ez literaturan ez euskalgintzan ez bizitzan etsi, ezta jenderik gehienak lanaz eta konpromezuaz beste egiten duen adinera heldutakoan ere.

Gaizkitik begiratzeko errebeldia eta barne-muinetako ontasuna: horra trenpuzko gizon aske baten bi oinak bizitzaren biderako.

AZAROAK HAMAIKA, SAN MARTIN EGUNA...

1921. urteko azaroak hamaikan jaito zen Ugalde-tarren seme zaharrena. Eguraldi onaren sasoiari

eta negu-horniketa elikagarriak egiteko tenorean. San Martin egunez.

Eriari eratzuna nola, hala dagokio egunak ekarritako santu-izena jaioberriari. Martin. Eus-
kal usadio, tradizio eta mito askori bizitza ema-
ten dion izena. Sentimendu erlijioso sakoneko
familia batean jaioa izaki, izen bereko santuari
egozten zaion pasadizo hagiografikorik ezagune-
nari erreparatuko bagenio (santuak, artean solda-
du zelarik, bere kaparen erdia hotzez sorgorru-
tako eskale bati eman zionekoari), Martin Ugalde
jaioberriak bizitza osoan erakutsiko duen eskuza-
baltasunaren iragarpentzat hartuko genuke izena.

BURUNTZA HARTU DUTE!

"—Nora hoa?

"—Iruna; goazemak!

"—Zer egin behar duk hik Irunen?

"—Zer? ... Haral!

"Eta txori aurpegi hark eskupeta bat erakutsi
zidan, jostailu bat balitz bezala: «Mendira niak,
goazen...».

"Egia esan, beldurtu egin nintzen: «Nik ez
diat, ordea, hik bezala eskupetarik»...

"—Joan hadi Herriko Etxera, eta hau beza-
lako bat emango ditek.

"Orduantxe bertan aita gogoratu zitzaidan.
Faxistek Buruntza hartu bazuten, non ote zen
gure aita?

"Bere bila hasi nintzen plazan.

"Ez zen inondik ageri.

"Iluntzen ari zen.

"Kamioi batetik nire izena irten zen berriz.
Anjelito bazihoan, bere eskupeta handi hura es-
kuan zetamala.

"Egia esan, inbidia pixka bat sortu zitzaidan
barrenean.

"Eta beldurti bat ote nintzen kezka jaio zi-
tzaidan barrenean".

(Gizerailtza ipuinetik)

Martin Ugaldek hamalau urte zituela sortu zen
gerratea. Hasiera batean, Ugaldek berak aitortzen
duenez, jolasa iruditu zitzaion egoera hura —esko-
larik ez, etxean ere lanik ez, eskupetaren bat ganba-
rako zokoren batean koipeztu eta lustratu be-
rri...—, baina Andoaingo lehenengo hilketak sas-
takoan erakutsi zion egoeraren benetako aurpegi
beldurgarria. Esperientzia hori du kontagai *Itza-
llea*k ipuin liburuko *Gizerailtza* narrazioak.

Aita gerran zebilen ordurako ("Faxistek
Buruntza hartu bazuten, non ote zen gure aita?"),
eta ama eta bi semeek, Andoain utzirik, Hernani-
ra jo zuten lehendabizi, Donostiara gero, faxisten
ihesi beti. Donostia erortzeaz, Zarautza alde egin
zuten, eta handik Mundakara. Bilbon amaitu zu-
ten Martinek berak "nire familiaren lehen errosa-
rioa" deitzen duena. Aitaren noizean behingo be-
rriak jasotzen zituzten. Bere Smith pistola han-
diaz eta mendiz mendi irudikatzen zuen Martin
gazteak. "Egia esan, inbidia pixka bat sortu zi-
tzaidan barrenean".

Bilboko akademia batean hasi zen zerbeit ikas-
tekotan, baina han ere ez zen bakerik, gerraren hon-
damendi psikologikoak harturik zeuzkan guztien

bihotz-zokoak. Etsaiak Bilbo bonbardatzen hasi zirenako, aita agertu zitzairen. Bi anaiak handik aterara behar zirela. Ingalaterrako bidea agorturik zegoenez, Errusiakoa gelditzen zen. Zalantza askoren ondoren, Joseba, anaia gazteena, bidali zuten hara.

Bilbo erortzeko hartan, berririo ihesari eman, eta Santanderrera jo zuten amak eta Martinek, ordurako aita gerrara itzulia baitzen. Santanderreko portuan noiz untziratuko zain egon eta gero, *New Castle* itsasuntzia hartu, eta Frantziara pasatu ziren ama-sembleak. Untziratatu aurretik, oidea, bi eskutitz jaso zituzten batera samartsu: anaiarena zen bata, Errusiatik; aitaren berri ematen zuen bigarrenak, Euskadiko Gobernutik igorriak. Ongi omen ziren biak. Aita Katalunian eta onik zebilela jakin zuenean, amak, Euskal Gobernuak Donibane Garazin zeukan egotetxean Martintz utzi eta gero, hara jo zuen.

Sakabanaturik zeuden senideak, harria botatzten zaion haritz abartsuko txoriak izaturik hegabanatzen diren bezala.

DOAN

Haur-jolasen buila udaberritsua sentitzen da Andoaingo kalez kale, bazterrik bazter. Zortzi urte doiko mutil koskor bat, orde, etxeko sukaldan ari da, lapitzaren punta expain-artean busti, eta idaz-lan baren tajukera urdurian. Oraindik ez daki barnetik darion idazteko plazer dohainak bere lehendabiziko saria jasoko duela bertako euskaltzale talde batek Manuel Larramendiren omenaz antolatuturiko lehiaketan.

Bilbon gertatzen da hurrengo eszena. Aita frontean da. Ama, bi semeak eskutik heldurik, Bilbora heldu da, eta ezagun batzuren etxean hartu du ostatu. Albeste gero eta trajikoagoen izuak luzatu egiten ditu gauak, eta egunak laburu ez. Martin bere baitara bildu da barrngo ezinegona arintze aldera. Ipuinari oniritzia eman dionean, Bartzelonara bidali du, eta handik egun batzuetara idazteaz den ez dakien batek nekez uter dezakeen berebiziko poza hartu du kioskora joan, eta *Pulgarcito* aldizkariak ipuina argitaratu diola konturatu denean. Begiak galtzen zaizkio letrari letra osaturako hitzetan, hitzen hariak jositako lerroetan, lerroen beltzak edertutako paper zurietan...

Ordurako neurri gabe maite ditu liburuak. Hautzarroari agur esan orduko, Martin Ugalderen ametsak ez dira bere adinkideenak: Salgari edo Victor Hugo ditu idolo, haiek bezala idaztea amets...

Martin Ugaldek, etxean ez bezala txalotu baitute atzerrian, maiz atera du arrangura: gure herria ez da bokazio artistikoak estimatu zale. Literatura izan da, bestalde, gure arteen errepublikako ahatearik itsusiena. Eta ber-bertako ahateak, bere hizkuntzarekiko itsusi-ustez jota, inguruko hegazti handien txinta ozenagoa imitatu du mendez mende...

EGIA EZ DA KAXA BAT

"Idazlearen lana egia esatea da", zioen Graham Greenek. "Askatasunik gabe ez dago egiairik", André Mauroisek. Idazteaz ari ginen batean Martin Ugaldek solasaldira ekarritako aipuak dira biak.

Gauza jakina da: idazleek eta kazetariak duten betebeharra ez da samurra. Objektibitatearekin nahasten da sarritan egia. Ez dira, ordea, gauza bera. Egia kazetariaren lanaren helburua (objektua) da, eta arrazoi du Graham Greenek, idazlearen lana egia esatea baita. Objektibitatea, aldez, kazetariaren begiradaren (subjetoak harturiko talairen) enfoketarako ahalik gaitzen lortzea da, eta arrazoi du André Mauroisek ere, ez baitago askatasunik gabeko egitarik.

Hargatik, bada, egia deskribatzea ezinezkoa dela dioen ustea, objektibitatea gordetzea ere ezinezkoa omen dela dioen ustearen anaia bikia.

Zailtasun bikoitz hori azpimarratzeko, Martin Ugaldek kaxa baten adibidea baliatu izan du egitari buruzko bere jarrerara agertzeko:

"Egia ez da kaxa.

"Kaxa batek hamabi ertz eta sei aurpegi ditu; bista duenak begiz erraz ikusiko dizkio kajari itxura eta kolorea. Hala ere, kaxa simple hau ez dute gizon guztiak (horretara ahaleginduta ere) toki berdinetatik begiztatuko eta itxura berber-bereko ikusiko, ezin baitira garai berean toki berber-berean egon; eta itxuraz-beste ere: argiak alde guztiak berdinetatik argitzen ez dituelako eta gizonaren begiak betak ere maiz daltonismo-gaitz horiek jota daudelako, begi guztiak ez dute kaxaren kolorea modu berean sumatzen.

"Ikusten dugunez, kaxa bat bezain simplea balitz ere, ez genuke egia denok berdinetatik ezagutuko (...).

"Egia ez du berez gorpuzik eta itxurarik, ez du margorik; ezin dugu bistaz ikusi; egia osatzen duenak...

tuko liguketen egia-gaiak askotan falta zaizkigu, eta bildu ditugula uste dugunean ere arrazoiz (giza arrazoiz), sentipenez, irudimenez, suma-bidez, ikusi eta pisatu behar ditugu, eta badakigu gure suma-bideak zein irudikorrek diren, eta gure arrazoiak zein etorkorrek eta geurekorrek izaten diren; bai besteenak eta baita *geureak* ere!"

E R B E S T E A

"...es la cara de la inmigración, si la inmigración tiene en verdad alguna cara definida; una cara que se parece como un hermano gemelo a otro a la del pueblo venezolano que sufre y trabaja.

"Y entre tanto inmigrante de compleja motivación, hay también en Venezuela una cara de muy definida trayectoria y merecedora del mejor respaldo: la de los exilados políticos. El grupo de los hombres que, por haber sido expresión de conciencia cívica en el pueblo que tuvieron que abandonar, ha demostrado hacia el país que los acogió tan noblemente una responsabilidad y un respeto ejemplares. Seguramente los venezolanos que están regresando ahora de un duro exilio sabrán medir en toda su hondura el dolor y la entereza que amasa un largo destierro.

"Hombres de hasta veinte años de exilio íntegro tienen que ser buenos ciudadanos; siembra honrada en cualquier país donde hayan rendido su faena de hombres".

Martin Ugaldek artean hamartsu urte zerratzen Venezuelan *Cuando los peces mueren de sed* erreportaia-bildumako aitzin-hitz horiek idatzi zituen.

Eta hogeita bi egin zituen, inmigrazioaren *compleja motivación* hori hausnargai, jakina baita hainbeste urtetako erbeste gizalegetsua daramatenak, edonon daudelarik ere, hiritar zintzoak izan ohi direla...

«ERRITAR»

Martin Ugalde ez da aurpegia ezkutatuazale izan, eta hala ere *Erritar* seudonimoa baliatu zuen Venezuelan *Eusko-Gaztedi* aldizkariako euskarazko lanak idazteko. Bere izena baliatzen zuen, ordea, gaztelaniazkoetan. Hona Ugaldek berak dioena, jokabide bitxiaren zergatia argitze aldera:

“Zergatik ez nuen hasiera hartan nire izenez sinatu? Ez dakit ziur. Nire lantxoan ortografia pobreaten susmoa egongo zen gertuen, seguruaiki”.

Bigarren hizkuntzaren seme eta geurearen umezurtz egin gintuzten garai ilun haietako trauma kolektiboaren lekukotasun erdi lotsatua...

ESKAINTZAK

Azken belaunaldietako idazleek ez dute beren liburuetakoa kortesia-orrialdean eskaintzak idazteko gogo berezirik erakusten. *Demodé* irizten diotelako seguru asko. Martin Ugaldek, ordea, ohikoa izan du kortesiazko detailtxo hori, bizitzaren kale-kantoietan familiarekin, adiskideekin, aberkideekin egin dituen zor ugarien aitorten gisa:

* Anamariri, berak euskeraz ikasi eta gure seme-alabak sehaskatik euskaldun egiten lagundu didalako maitasunarekin (*Umeentzako kontuak*)

* A los exiliados vascos que llegaron a Venezuela hace 25 años, y a Miren Ainara, mi hija, que acaba de nacer aquí (*Las manos grandes de la niebla*)

* Agirre Lehendakari bikainari, eta berak bezala bizia Aberriari eskaini dioten euskotar guttietei (*Ultzalleak*)

* A Miren Irxaso, que tiene un año, a Unai Ona, que ha cumplido dos, y a Anamarí, que me los ha traído (*La semilla vieja*)

* Erxaniztar Nemesio apaiz-gizon beldurgeari (*Ama gaxo dago*)

* Al jesuita andoaindarra Manuel de Larra-mendi, Aita Manuel, en el segundo centenario de su muerte (*Unamuno y el vasuence*)

* Herrikoitasunean anaia sentitzen dudán Iñaki Zabala Sarriari (*Itxaso ur-bazter luzea da*)

* A don Justo de Zabala, quien supo ser hombre en la fortuna y en la adversidad, con admiración (*Hablando con los vascos*)

* Nire euskara literarioaren aingeru goardakoa izen den Xalbador Garmendiari bihotz bezatez (*Bibotza golkoan*)

ESKOLA INPROBISATU BAT

Gerraren azken arnasaldietan Martinen aitak, Asturiasko Musel portutik utzi txiki batean ihes eginik, Bartzelonara alde egin ahal izan zuen, eta han elkartu zitzaion emaztea. Martin, bitartean, Donibane Lohizunen gelditu zen, bere ikasketak egiten, eskola *inprobisatu* baina eder askoan, Joxemiel Barandiaran, Adrian Ugarte, Jhon Zabalo (*Txiki marrazkilaria*), Andoni Arozena edo Agustín

Zumalabe matematikaria bezalako irakasle-koadrila baten fortuna gozatu ahal izan baitzuen...

ESKUTIK HARTURIK, ZAPIAK AIREAN...

Gerraren azken hondarrak. Polizia frankistak Martinen ama atxilotu zuen Bartzelonan, eta Andoaina ekarri. Martinen aitak, Kataluniatik alde eginik, Ipar Euskalerrira jo zuen. Seme zaharrenekin elkartu zen han. Seme gazteenak Errusian segitzen zuen. Ez bizibide ez lasaibide, egoerak latria zen familiarentzat.

Orduko *bizkorrak* Argentinara eta Mexikora joaten ziren, Venezuela orduan, 1939an, herri pobrea baitzen. Adiskideren batek, ordea, Venezuelara joateko aukera agertu zion Martinen aitari. Hark ez omen zekien Venezuela non zegoenik ere, eta, etorkizuna beltza izanagatik ere beltzagoa zenez oraina, harako aukerari heldu behar izan zion.

Venezuelara alde egin aurretik, seme zaharrena eskutik harturik, Biriaturaino joan zen, emaztea, ordurako mugaz beste aldean baitzegoen, agurtzeko.

Distantziak distantzia eta mugak muga, sendideek agur esaten zioten behin eta berriro elkarri, painueloak airean astindurik, harik eta karabineroak eta guardia zibilak agertu ziren arte. Aita-semeek ezin Hendaia aldera joan beste deusik egin, guardia zibilek emakumea bultzatzen eta ibiltzeko esanez Irun aldera zeramatzen bitartean!

Eszena haren lekuko izana eta guardia zibilenganak bere jarrera lotzen ditu orain Martinek ironiaren mingostasunez:

—Ikusten duzenez, hara nolako maitasunak datozkidan guardia zibilengandik: lau senide eta lau gurutze, munduko lau kalbario aldatuak, eta, aita Venezuelara joan zitzaiguneari!

EUSKARA BATUA

Euskal Herrira itzuli, eta berehala ezagutarazi zigun Martin Ugaldek bere kazetari-sena. Euskaldungoa liskartuta zebilen euskara batua zelaldea H letraren inguruan. Euskaltzaleen arteko giroa liskartsua zen, hitzeko eraso eta irainak etengabeak, eta batasunaren auziak arrunt gaindituak zituen eztabaida zientifiko baten mugak orotara, euskaldunon arteko gatazka sozial bihurtzeraino. Ugalde kezkatuta zegoen, eta *Zeruko Argian* argitaratutako "Gure semaforoaren argiak piztu bitez" artikuluak dugu horren lekuko. Ez zitzaion, ordea, arriskuaz ohartaraztea aski iruditzen, eta, zezenari adarretatik oraturik, eztabaida hartako zortzi protagonisten elkarriketatu zituen: Manuel Lekuona, Juan San Martin, Lino Akesolo, Jose Mari Sarustegi, Damaso Intza, Xabier Kintana, Piarres Lafitte eta Koldo Mitxelena. Euskal Herriari buruzko ikuspegi anitza aldarrikatu zuen Ugaldek elkarriketatuak hautatzerakoan:

"Aukeratutako sei-zortzi gizonen artean mugaz harantzko eta honantzkoak izango dira; h-ez honuntz eta haruntz daudenak ere bai; batzuek besteak baino radikalagoak; denok osatzen baitugu gure herri hau".

Martin Ugaldek bazuen, jakina, auziari buruzko bere jarrera, eta, lanari ekin aurretik,

bere talaiara argitu nahi izan zuen arestian aipatu-tako "Gure semaforoaren..." artikulu hartan:

"Nik egi borobil bat aitortu nahi dut emen: nere ustez, delako H honek orain arte euskerari on baiño kalte gehiago egin diola, ta aurrera ere gaur euskeraz egiten dun erriari ta datozen ume euskeldunei ez diela erreztasun bat ere erantsiko".

"Baiña, ala ere, euskera batu behar ba dugu, H hori erabiltzen duten euskaldunen hamarretatik bat hartzea ez zait pekatu iruditzen; amarretatik amar artea bai, setakeri-pekatu aundia da gaiñera; baiñan amarretatik bat, ez; bi asmoen batasuna egiteko, baten legea onartu baiño bi legeak neurritz bat egitea zuzenagoa da. Noski, erabaki hoiak ezin dirugu euskeldun txekak gerez artu; ta hori ikusirik, nik gure izkuntzaren gor-delari direnen iritzia onartuko dut".

Martin Ugaldek bazuen, batasunaren auzialanda, bere kazetari-jarrera ere, eta ez zion, ezer-gatik ere, uko egingo:

"Elkarrizketa hauetan nik, eta neure eskubide osoz, eta neure izenean, eman diot elkar-hizketari nire ezinbesteko eta beharrezko kursua; nola ez?; askori luzeegiak eta harroegiak iruditu zaizkie nire galdera-bideak; gerta litekeena da, ez dut horrelakorik ukatzen; halare, erantzulea motibatu beharrean aurkitzen da periodista inora iritsiko bada: bestela h-aldeko lau kurpil, eta h-aurkako beste lau kurpil ekarriko nituen elkar-hizketa horietara. Nola nahi, nik nereak neure izenarekin esan ditut, beti ohi dudana bezala, eta inorenik ez dut txikitu, ez puztu, eta, bestalde, berean uzten ahalegindu

naiz; lanak agertu aurretik erantzule bakoitzak osorik ikusi eta baieztaatu ditu. Gehiago ezin egin izandu dut auzi larri eta minkor honetan".

Orduko euskaldungoak oraindik ere gogoan duen elkarrizketa-sail garrantzitsua izan zen hura, etekin handia ekarri baitzuen giroa bere beharrezko eztabaida-mailan jartze aldera. Langintza horretan, salatu ere salatu zuen Martin Ugaldek hizkuntzalari honi edo euskaltzale horri eskaintzen zitzaizkion gehiegizko itzala eta begiramen-na, eztabaida inolako onik gabeko mitomania eta pertsonalismoetara eraman nahi antzua:

"Ez genituzke pertsonak berez on edo txar-tzat itsu-itsuan hartu behar; beren asmo-esanak eta beren eginkizunak, bakoitza bere garaian aztertuz baizik; gizon on batek egin lezake huts-behin eta ehun aldiz, eta utsak utsak direla aitortu behar; eta bestaldetik, gizonak, nor nahi dela, txalogarririk egiten badu, txalo! norbaiti lotzea errazagoa da, auzi bakoitza aztertzen jarri eta iritzia gizonki azaltzea baino".

Lan hark ekarri zion oinaze eta desgusturik ere: "Ni, heldu berria eta mundu honetan eskarmentu gabekoa, hasi nintzen gauzak idatziz argitu nahiean, batekoei eta bestekoei elkarrizketa luze batzuk eginaz, baina kaskarreko eta iraina franko jaso ondoren, pentsatzen hasi nintzen H berekin zuen erdara hutsean jarraituko ote nuen; hor zegoen aspaldiko gure batasuna egina! Hala ere, nire euskal kontzientziak instituzioaren bi-dea hartzera eragin ninduen, eta aurrera jarraitu nion, *Zeruko Argiaren* bitartez, Euskaltzaindiari.

"Eta ez dut damurik".

Azkeneko hitzetan nabarmentzen dugunez, Martin Ugalderen iritziak ez datoz guztiz bat lanari ekin aurretik eta lana bukatu ondoren: jarreta intelektual irekiaren malgutasunari esker, kazetariak ere ikusi eta ikasi egin du bidean (hasierako kezkarri ondorengo disziplina nagusitu zaio), bere buruariekiko zintzotasuna baitu idazleak irakurlearekin ere zintzo izateko modu bakarra.

FRANCO BIZI DEN ARTEAN...

Bretagne itsasuntzia Bordeleko portutik irten zen. Hainbat erbesterratu, tartean Martinen aita, zeraman Venezuelarantz. 1939ngo abuztuak 26a zen. Handik bost egunetara doi, Alemaniak Polonia hartu zuen. Frantziak eta Erresuma Batuak ez zuten Alemaniari gerra deklaratu beste biderik izan.

Aita Venezuelarako bidean, Martinek ezagutzen zuen urpekari alemanen arriskua, baina aitarrekin noiz elkartuko amets eginez egiten zion aurre izuari. Aita untziratu eta hiruzpalau astetara, ordea, komunikabide frantsesek *Bretagne* untziaren hondoraketa zuten albiste. Ez zegoen, bada, aita agertzeko esperantzarik, inolako miraritarako itxaropenik. Handik egun batzuetara, ordea, Martinek postal bat jaso zuen argazki sepia batez: *Bretagne* untzia ikusten zen bertan Venezuelako La Guaira portutik irteten. Bihotza golkotan, postalaren arzeko aldeari begiratu zion Martinek. Aitaren letra kaligrafiko dotorea ezagutu zuen:

Seme maitea...

Venezuelatik zetorrela, eta ez haranzkoan, hondoratu zuten *Bretagne* untzia!

Behin eta berriro irakurri zuen postala. Bidaia berri laburrak. Caracastraren albiste. Eta zintzo portatzeko aholkua.

Laster arte.

Hitzik ez, ordea, handik urte batzuetara Martinini kontatu ziotenaz: Venezuelako La Guaira portura iritsirik, belaunikatu eta hango lurrari musu ematea izan omen zen Martinen aitak hartutako lehendabiziko lana:

—Franco bizi den artean ez nauk itzuliko —esan omen zien gero exodokideei.

Hitza bete zuen.

—Nire herrira etorri naizenean, garbi dakust herri hau ez dela lehengoa. Francok guztian irabazi digu —egin zuen lanturu Martinek Euskal Herrira itzuli orduko.

Gero, abailduraren aurka errebelaturik, euskalgintzari ekin zion, Francok guztian irabaz ez zezan.

Handik pixka batera gurasoak ekarri zituen, hiltzeko "etotteraren zain baleude bezala" bizi omen ziren eta Venezuelan. Itzuli eta hilabete t'erdira berdindu zuen euskal lurrak Martinen aita. Urte batzuk gehiago egin zituen amak Ugaldetarren Hondarribiako etxean.

GRAMATIKA

"Gramatikarekin idazten ari bazara, ez duzu inoiz gauza berririk esango. Gramatika ezagutzen duzun neurrian, gramatika hori puskatu beharrean aurkitzen zara".

Idazle-senak eragindako aitortpena, bide ibilietatik ihesi eta bide ibilezinetatik urruti, urruti, urruti...

"Espainiak ez zuen lortu Hegoamerikaren era bateko konkistarik, ez baitzuen haien arimarik harrapatu. Herri bat konkistatzeko arima harrapatu behar da. Horra hor nola espainolen erruz den gaur Hegoamerikak duen zatiketa, elkartu ezina. Baina arima geratzen denean, hitza ere geratzen da bere baliapide guztiez, eta hitz horrek mirariak egin ditzake. Ezagutzen dituzu ongi García Márquez eta Lezama, Vargas Llosa eta Borges. Eta Carpentier handia. Cortázar ez, Cortázar-ek ez du haien indar berezi hori, europarrak baitira haren bihotza eta irudimena.

"Benetan aberatsa da hegoamerikarren literatura. Eta ez da artifiziala, hori ez! Bi zibilizazioek eman diote indar hori, ez da espainiarra soil, azalean hala badirudi ere: bertako arima ageri da nonahitik".

Hegoamerikako idazleen oihartzuna gero eta ozenagoa, haien eraginaren urrezko aro distiratsu hartan bizitzea egokitu zitzaion Martin Ugalderi.

Ondo aprobetxatu zuen abagunea. Bi trazo eskematikotan emandako erretratu sakonak. Lurra eta elementu telurikoak, trajedia pertsonalen lekuko mutu. Venezuelako arnasaz hauspotutako hizkeraren indarra "el venezolanismo estaba vivo en el hondón mismo del lenguaje". Estilo gero eta pertsonalagoa, bere elipsi, erritmo-aldaketa eta foku-mugimendu etengabearekin...

Eta guztiaren gaineratik (guztiaren hondo-hondoan) gerru-gertuko giza egoerak, euskaldun batent elkartasunezko begi adiskideez deskribaturik.

Bigarren Mundu Gerra hasi zenean, frantsesak beldur ziren errefuxiatuak alemanen alde irtengo ote ziren, eta itxituretan lotu zuten hainbat errefuxiatu, tartean Martin. Andoaindarrak, ordea, handik alde egitea lortu zuen trikimailu baten bidez, eta, Tolosako adiskide bat bidelagun harturik, Donibanera iritsi zen. Handik egun gutxi barru alemanak sartu ziren. Inguruko errefuxiatu gehienak Donibaneko plazan bildu, eta aukeran jarri zieten Espainiara itzultzea edo alemanen arma-fabrika batean lan egitea. Venezuelara joateko amets guztiak porrot eginik eta ama Andoainen zeukanez, Martinek etxeratzea erabaki zuen, jakinaren gainean etxeratzeak Francoren mende jartzea zekarrela.

—Zein luzea egin zitzaidan Hendaiaiko zubia...! —dio Martinek hartaz gogoratzen delarik. Nekez adieraz daiteke gihartsuago itzuleraren gogorra.

Behin Andoainen, inork ez zion lanik eman nahi, eta Martinek berak aitortzen duenez, ez omen ditu andoaindar garaileen begietan ikusitako gorroto eta hotz haiek ordutik inon ikusi, inoiz bihotz-barneratu:

"Fue duro todo: se negaron a dar-me un trabajo, mi primer trabajo, cualquiera; sin poder encontrarme con una mirada limpia por las calles, porque hasta las de los que no eran enemigos políticos de mi padre, eran también furtivas; muy pocos se atrevían a hablarme en la calle... Visitas, muy pocas. Por fin hubo alguien, el Ingeniero don Manuel Laborde, quien me proporcionó un trabajo en su fábrica de brocas y herramientas..."

HERRIALDERAT ITZULIZ USU BEGIAK

Laborderanean lana lortu eta pixka batera, "ar-men hartzera deitu ninduen gazterik zorte etsaiaik" hura obeditu beharra egokitu zitzaion Martini. 1942. urtea zen. Tetuana eraman zuten merkan-tzia-tren zahar batean. Ateak erabat itxi, eta bero nardagarri, astuna izan zuten hiru egunetako bi-daian. Pixa eta gainerakoak ere ohol arteko zirri-tuetatik egin behar izaten zuten.

Hijo de exiliado rojo-separatista que viene de Fran-cia zioen Martinen kartila militarrek.

Zigilu horren zama eraman behar izan zuen Martinek Tetuanen egin behar izan zituen hiru urteetan. Gainerakoan, Tetuan parentesi isil han-di bat da Martinen memorian. Orduko oroitzape-dak ezabatu nahi izan dituelako agian...

Tetuandik itzuli zenean, ama Venezuelara joa-tekotan zebilela ikusirik, semeak ere asmo bera hartu zuen. Ez zitzaion, ordea, erraza gertatu, agintari frankistek ez baitzioten emigratzeko bai-menik ematen. Azkenean, abokatu baten lagun-tzarekin beharrezko baimenak lortu, eta Vene-zuelako bidea hartu zuen.

...*Urrundu nintzen, berrialdetat itzuliz usu begiak, itzuliz usu begiak...*

Venezuelara heldu zirenerako, aitak Errusia-tik ekarrarazia zuen Joseba, anaia gaztea.

Hamaika urte Espainiako gerra hasi, eta txori hegabanatuak habia bakarrean bildu arte! Arbola ez zen, ordea, hamaika urte lehenago harria bota zioten haritz abartsu bera...

ILTZALLEAK

Martin Ugaldere *Itzalleak* da ahoko tradi-zioarekiko lotura zuzenetik zein kostunbrismoaren bideetatik desbideratzen eta bide propioa egiten ahalegintzen den lehendabiziko euskal ipuin-bil-duma.

Sarritan erreibindikatu dut *Itzalleak* euskal ipuin modernoaren hastapen gisa. Gauza bera egin dute, nik dakidala, Inazio Mujika Iraolak, Koldo Izagirrek eta Xabier Mendiguren Elizegik ere. Erreibindikazio gero eta onartuago horrek baditu kortesiatic haratago dauden arrazoi gar-biak, gurean Ugalde baitugu ipuin literarioaren *autonomia* erreibindikatzan duen lehendabiziko euskal autorea:

"En el País Vasco, y también en España, hay la constumbre de creer que este género es un arte menor dedicado a los niños, algo así como lo que la acuarela de ilustración infantil es a la pintura formal".

Kostrunbrismotik guztiz urrun, Martinek eta haren adiskide Jokin Intzak gerra inguruko ur-teetan bizi eta ikusi izan zituzten gertakari lazga-riren ispilutza egiterakoan, Ugaldere errealis-moak bat egiten du galtzaileekin. *Erresistentziako ipuinak* deitzen die Ugaldek berak, *pose neutral-estetikoen* juzkuekiko kezkarik gabe.

Badakigu, beraz, zein den Ugaldere *talaia* (haren posizioa ez da sekula ekidistantzia aseptikoa izan, eta ez da inoiz saiatu irakurleak horrelakorik pentsa dezan). Lekukotzaren autentikotasunak du garrantzia, eta ez gertakariaren deskribaketa objek-

tibo-ustre hotzak. Onak eta gaiztoak baino, irabazleak eta galtzaileak bereizten ditu Ugaldek. Edo sufrimendua banatzeko mekanismoen jabe guztiz ahaltsu bihurtu direnak eta sufritzaileak. Historiak banaturakoak, beraz, eta ez juzku moralak...

Hala ere irakurleak hautaketa horri iritzi lie-zaiokeen manikeismoak *ironia* du ukendu, eta, Lizardiren ondoren, Ugalde dugu tresna horri, gauza bat esan arren beste guztiz desberdin bat erakusten digun baliapide maltzurriari, bere benetako neurria ematen dion euskal idazlea: begirada ez da esfinge hotz hieratikoko batena, asmo jakinez bideratua baino...

Ugalderen lehen ipuinotako modernitatearen beste ezaugarri bat ipuinaren *tajukera* da, erritmo biziz, elipsiez eta jauzi narratiboez osatua. Iradokizuna, zehar-esana eta ezkututzen dena ere kontakizunaren parte garrantzitsuak dira: idazleak hainbat elementuren *ausentzia* nabarmentzen du irakurleak lerro-arteko kontakizun eta mezu in-tsinnatuak ere jaso ahal izan ditzan.

Oraindik inork nabarmendu ez badu ere, *bar-ne-bizketa* etengabeak daude, oso dosi laburretan emanak, ipuinotan, eta barne-hizketa horien modernitatea, narrazioaren osagarri soil izatea traszenditu, eta narrazioaren betaren motore bilakatzetik dator:

"Ihes egin ahal balu! Nondik? Eta bertan hilko balitz? Bertan nola hil?... Bada, ez zekien bada, bihotz atake batek emanda edo... ez zekien bada! Heriotza arina izango litzateke hau!...

"«Tranbia hori Andoainera zihok», esan zuen Xabalek berretzat.

"Hor eserita doazenak lasai asko zaudek. Aber-tzaleak ote dira? Gehienak bai, noski... Beratek zer ote dakite bada, polizia tartean goazenok nor-tzu garen!... Lapurrak edo!...

"Euskarar denek elkar egingo balute, polizia horiek eta gainerakoak ere aise menderatuko lituzkete bada, e?...

"Hor zetorren tranbia...

"Eta tranbia aurretik pasatzerakoan beste al-dera salto egin eta ihes ahal banezal... Eta tiro batekin hiltzen banaute?... Eta ostikadaka eta kulata tankadaka hasi eta haiek hitz egiten araz-ten badidate?...

"Lino eta Anjel eta guardia zibilak eta poli-ziak egurra bezala geratu ziren Xabale tranbia azpian ikusi zutenean".

Itzalleak ipuin-liburuko *bizkera* nabarmen-duko nuke azkenik: Zuzena da. Gihartsua. Kon-takizunek berek duten giro urduria jaso nahirik-edo, halako urduritasunezko hizkera bat osatzen du Ugaldek: oso perpausa laburrak, kopulatiiboak, puntu suspentsiboak, airean utzitako esaldiak, harridurak, interpelazio zuzenak...

IRAKURLE BATEN HASTAPENAK

Haurtzaroko irakurketen artean, Salgariren liburuak etortzen zaizkio burura. Eta bizitzan ze-har izan dituen eraginei buruz, berriz, irakurri-tako guztien nolabaiteko oihartzuna onartzen du. Bartzuk aitortzen dira, beste batzuk ez, eta eragin horietako asko eta asko ahanzturak lapurtzen ditu betirako idazlearen oroitzapenen ganbaratik, na-hiz eragin horiek guztiz bizirik iraun idazlearen

obran. Bestalde, idazle baten eraginei buruzko iritzia ez dago soilik irakurritakoari lotua, ikusten dugun, entzuten dugun eta sentitzen dugun guztiak ere halako eragin-sare bat osatzen baitu.

Hautzaroko irakurketen artean Salgari zuen bezala, Victor Hugo du nerabegaroko idazlerik maiteenetakoa, eta askotan aipatu du idazle frantsesaren *Les misérables* nobelak gaztetan eragin zion zirrarara. Euskal Herriko orduko literaturak, berriz, ez zuen bere idazle nahia gogobetetzen. Ahul ikusten zuen gure literatura, eta ez zuen hementz gorik gehiegi irakurri: "Euskaraz egindako lanek ez zuten nire idazle-nahia asetzen". Koldo Izagierrek beste modu batean adierazten du egoera bera: "Zorionez, Ugaldek ez zeukan euskal literaturan eredu hartzeko moduko maisurik, eta izan balu ere zaila zukeen haren berri izatea".

Filosofia ere asko irakurri omen zuen, eta, bitxikeria modura, Garmar-en *Sugerencias* asko gustatu zitzaiola aitortzen du (handik urte batzuetara Garmar hori faxista ikaragarri bat izan zela jakin zuen: garai norarik gabe haien kontua izan, nonbait, filosofo faxisten gailentze hori!).

Behin Venezuelan, bere ahaidetasun literarioak fintzen hasi zen:

"Comencé a leer en Venezuela cuentos de Gallegos, Pocaterra, Meneses, Díaz Sánchez, Us-lar Pietri, Alejo Carpentier (...). Todos ellos han sido mis maestros. Comencé a escribir encandilado por esta sorpresa, y me dejé llevar, claro es, por estas manos y también por las corrientes de la literatura venezolana en que estaba el loco grande que fue Horacio Quiroga, el Borges prodigioso,

además de algunos europeos que descubrí en América: un Chejov, un Daudet y un Maupassant, sobre todo éste, y los norteamericanos Faulkner y O. Henry, tan diferentes, y Edgard Allan Poe, y el más reciente entonces, Salinger".

Ipuinak zituen, bada, gogoko. Bi zirriborro azkar eta giroketa zehatz batez irauarazten diren *flashb* dirdaitsuak. Edgar Allan Poek erreibindikatutiko gertakizunen eta efektuen kontzentrazioak *tempus* berezi bat eskatzen du, eta kontalari guztiak ez daude *tempus* horretarako jantziak, ipuinak, nobela batek ez bezala baina poema baten antzera, bat-bateko eztanda baten efektu aplikatuz limurtu behar baitu irakurlea. Denboraren ekonomia eskatzen du ipuinak, *continuum* baten zati dramatiko jakin batean erreparatzea, historia luze bat laburbiltzen duen une esanguratsuena instantanea batean harrapatuko bagenu bezala. Erabili gabeko elementu baztertuek zein iradokiek ere garrantzi bete dute ipuingintzan, *in absentia* horrek ere ipuina *osetzen* laguntzen baitu.

ITZULERA BATEN HISTORIA

Itzulera baten historia nobelako neska koskor protagonistak zera dio kontakizunaren hasiera samarrean:

"Urteak ziren Venezuelan bizi gineela, baina beti egun batetik bestera itzultzeko asmoak eragindako probisionalotasun honetan bizi ginen. Ertxeratu gehienentzera, nik uste. Ez ginen inoiz inongo sentitzen... beno, bai, jaioterrian, beste munduan geratu zen jaioterriko ezinbestean! Geure familiako eta herriko oroitza penak

dagoeneko horitzen hasi ziren argazkietan geratu ziren....

Martin Ugalderi ere iritsi zitzaion, halako batean, horitzen hasitako argazki haietara itzul-
tzeke tenorea. Euskal Herriatik alde egitea eraba-
kia zaila gertatu baldin bazitzaion, ez zen samu-
rragoa itzultzea, Venezuelako erbeste luzeko gero
eta urte oparagoen garaian (literatur arrakasta,
begiramen profesionala, ondasun ekonomiko ziur-
tatua...) egin baitzituen honanzko mailetak:

"Hubo enfrentamientos de responsabilidad en
mis adentros.

"Gracias al apoyo de mi mujer fuimos capa-
ces de conciliar el amor y el deber hacia Venezue-
la, la nueva Patria, y el que nos exigía la vieja en
trance político y cultural muy difícil".

KAZETARI BATEN AMETSA: EUSKALDUNON EGUNKARIA

Soldaduskatik itzuli zenean eta Venezuelara
joan aurretik, irakurtzeari eta idazteari ekin zion
Ugaldek. Kazetaitza gustatzen, eta lantxo bat lor-
tu zuen, Andoaingo kirol-kronista moduan, Do-
nostiako *El Diario Vasco* egunkarian. Giro ito har-
tan, galerazita zeukan euskal abizenak-eta euskal
grafiaz ematea bera ere. Ez zioten futbola beste
gairik uzten, ez zuen beste inolako aukerarik.

Venezuelan ezagutu zuen Ugaldek idazteko
askatasuna, irudimenaren hegakada arina: "Nahi
nituenak esateko bidea libre zegoen tajuz eta in-
teresgarri zen moduan, Salgariren antzeko esatera
saiatzzen banintzen. Askatasuna, edozein hizkun-
tzatan, ederra dela sumatu nuen!".

Esperientzia handia lortu zuen Venezuelan
kazetari moduan: *Elite*, *Nosotros* eta *El Farol* aste-
karietako zuzendari, Estatu Batuetarako beka bat
eman zioten Venezuelako bere lantegian, eta ka-
zetaritzako *master* egin zuen Chicagoko North-
western unibertsitatean. *El Nacional* egunkari en-
tzutetsuko kazetari ere izan zen (bi aldiz irabazi
zuen izen bereko erreportaiia-saria). Urte haietako
lan interesgarri askoren bilketa da *Cuando los peces
mueren de sed* erreportaiia-bilduma. Venezuelako
hainbat lurraldetan ezagututako giza egoerak,
"unos mensajes de interés humano", eskaintzen
dizkigu Martin Ugaldek, errealitate berrira ja-
kinminez, errespetuz eta maitasunez hurbildurik.
Erreportaiak, bada, baina sakontasun eta lustre
literario ederrez josiak (Martinen ustez, kazetari-
tza ez baita berri ematearen ofizio soila: albisteak
hitzaren bidez ematen direnez, kazetariak hitza
du bere tresna, bere mailu menderakaitza). Ugal-
dek agertzen dizkigun pertsonaiek, lurrek eta ger-
takizunek anekdota soila traszenditzen dute, eta
irakurleari ahaztu ere egiten zaio erreportaiia bat
irakurtzen ari denik:

"Las Hermanas Misioneras de María Inmacu-
lada y Santa Catalina de Siena se despertaban
entre sus cuatro paredes de cemento recién fra-
guado y decían:

"—¡Dios mío, qué horas de dar el agua!

"Y en la quebrada del Carmen, que es donde
atienden un centro escolar y asistencial de «Fe y
Alegría» del Barrio Unión, en Petare, y por los
caminitos de cabra que trepan sobre el lomo de
los cerros cargados de casuchas, comenzaba a tran-

sitar una bulla sorda, de mercado, que duraba hasta las dos o las tres de la madrugada; hasta que se consumía el chorrito de agua.

"Después, comenzaban a ladrar los perros".

Erreportaia baten hasierakoak dira hitz horiek ("Medio Caracas vive en los cerros"). Tonuari-eta begiraturik, ipuin baten hastapenekoak ere izan zitezkeen, ordea. Rulforena, esaterako. Ipuin-gintza eta kazetaritza konparatzerakoan, ipuinak baino arinago eta libreago pentsatutako lantzat dauzka Ugaldek artikuluak, iraunkortasunaren ardurak ez baitu kazetaria idazle bat bezala atximurtzen. Hortik aurrera, idazlearen erabakiaren neurrikoak izan daitezke parekotasunak eta desberdintasunak. Martin Ugalderen erabakiari dagokionez, garai hartako lanek konta-kazetaritzaren eta literaturaren arteko joan-etorri horixe dute ardatz: erreportaia literaturtzen du, eta literaturak, berriz, erreportaiaren iturri beretatik edaten du... Hiru ipuin-bilduma eder dauzkagu horren lekuko: *Un real de sueño sobre un andamio*, *La semilla vieja* eta *Las grandes manos de la niebla*.

Martin Ugalderen lan horiek gero eta oihartzun handiagoa zuten Venezuelako idazle, kazetari zein irakurleengan. Ez zituen, ordea, euskaraz idazteko zeuzkan egokiera urriak baztertu:

"Erdaraz idatziaz jateko irabazi, eta Eusko-Ertean euskara landuaz hasi nintzen nire elebitasuna pixka bat orekatzen".

Oreka-nahi horren fruituak dira, *Itzalleak* (konta-kazetaritzako anekdota transzenditurik), *Umeen-tzako kontuak* (Erbesteko guraso euskaldunen seme-alaben egoera linguistikoaren orekari laguntzeko

idatziriko eta egoturiko ipuin tradizionalak), *Amagaxo dago* (Euskararen kultur-baliagarritasunen aldeko antzerkia), *Gurpegin aspaldi gertatua*...

EAJren *Eusko Gaztedi* eta *Euzkadi* barne-aldizkarietako zuzendaria ere izan zen, andoaindarra ez baita inoiz konpromezu politikoa irizkarra erakutsi ohi dioten gizon horietakoa.

Aukera izan zuenean, ordea, hogeita bi urteko lanez lorturiko erotasuna eta fama atzean utzi, eta itzultzea erabaki zuen. Zekarren *curriculumarekin*, aski zuen *ameto* eman eta diskrezio pitin bat gordetzea hemengo zein Estatuko prentsa eta argitaletxeetako ate astun asko aise zabaltzeko. Bide aldatuagoa hautatu zuen, ordea, Martin Ugaldek. *Mantal urdina* ipuin bildumaren hasierako ohar batek Martin Ugalderen orduko publizista-ibilieren berri ematen digu:

"Ez dut azken urte hauetan euskaraz idatzitako libururik argitaratu. Ez nahi izan ez dudalako, erdarazko eskabide batzuren mende egon naizelako baizik, eta hauek ere abertzale baten ikuspuntutik aspaldi egiteko zeudelako. Bestalde, eta dena esan beharra dago aitortzetan, idazle bezala nire lanetik bizi naizenez gero, euskarazkoen eskabiderik, enkargurik, ez dut jaso".

Eta *Egin* egunkariak bere irakurleen artean banatutako "Síntesis de la historia del País Vasco" liburu entzutetsuaren edizioko hitzaurrean:

"Al llegar de regreso al país con la promesa formal de no meterme en *líos*, tuve que buscar caminos editoriales fuera de Euzkadi y maneras de hablar de los problemas culturales y políticos del país, mediante el subterfugio de divulgar con

autoridad suficiente, mediante entrevistas a especialistas, los elementos básicos de la nacionalidad vasca, de la que el pueblo no tenía noción científica, sino apenas la intuición elemental de una justicia prohibida”.

Subterfugio horren ondorio dira *Hablando con los vascos, Síntesis de la historia del País Vasco*, edo hainbat abertzaleren biografiak: Sabino Arana, Jesus Mari Leizaola, Aitzol, Lezo Urreiztieta...

Idazle-lanetik bizi bazen ere, ez zen, haatik, Martin Ugalderen euskal erantzunkizuna ahitu, andoaindarrak zerikusi zuzena izan baitu orduko eta gaurko euskal prentsaren hainbat ahaleginean: *Zeruko Argian* kolaboratzaile eta *Deiako* eskarara-arduradun, garai zail baina emankor haien lekuko interesgarria da orduko hainbat artikuluez osaturiko *Batasun eta zaitiketen artean* bilduma: euskaldunon batasuna goritu nahiaren kezka bera ageri da Martinen sentimendu, bizikizun eta pentsamenduen ingudean oso urte desberdinetan landutako artikuluko gehienen muinean.

Egunkaria kalera irten zenetik bertako Administrazio Kontseiluko Zuzendari, aukera guztiak baliatzen ditu egitasmo horretan ameskide izan zituen Joxemi Zumalabe eta Joseba Jakaren lana azpimarratzeko. Halaxe egin zuen oraintsu, *Egunkariaren* 2000. aleari eskaini zion artikuluan.

Baina testu labur hartan bada, bi adiskideen oroitzapenaz landa, besterik. Horra parrafo esanguratsu bat Ugaldek euskal kulturaz orohar eta egunkari baten beharraz konkretuki pentsatzen duenaz:

“Zazpi urtez egunero Euskal Herri osoan gertatutakoa jaso, idatzi, goizeko ia oilarren ordu-rako bi mila egunez Andoaingo idazlaritzan moldatu, Hernanin inprimatu eta euskal mundura zabaltzeko egin behar diren keinu eta bidaiak guztiak egin ditu *Egunkariako* ekipoak, hutsik egin gabe, publikitate gutxiko gasolinarekin gainera, gainerrantzekoa bihurtzak eragiten baitu. Baina bihurtzak ezin du dena ahal. Hizkuntza bide den guztiak du aje bera. Gizartean larruaren kolorea bezala heredaruko bagenu hizkuntza, jaió ahala hitza seguratu genuke euskaldunok, eta irakurtzen ikastea nahikoa litzateke irakurle bat irabazteko. Baina mundua alderantzizko ahalmenarekin egina dago, dagoenez geto. Euskaldun gehienek euskalduntasun falta, hobeto esan, erdalduntasuna, izango dugu gure gaurko munduan arazo kultural nagusia. Gure administrazio autonomoak hau ulertzen ez duen bitartean, gure ahaleginak neketan bizi beharko du. Honek esan nahi du aurrerabidean pausoak ematen joan beharrean, lokaztuta utzi gaituzten sentipenarekin ibiliko garela”.

LEKUAN LEKUKO

Begira dezagun Koldo Izagirrereren begiez: “Lekuan lekuko, Ugalde idazle elabakarra da. Bere taldearekiko literatura hari bakarrez lotu ohi du, kutunen eta sakonen zaizkion kodeak erabiliz: venezuelatarrentzat hain berea duten gaztelania kasikan krioiroz, euskaldunentzat euskaraz. Inoiz teorikoki planteatu izan dugunaren froga ematen digu Ugaldek: garrantzikoena ez dela zein hiz-

kuntza erabiltzen duen artista batek, baizik eta nori zuzentzen zaion, zer talderi ari zaion, halako hizkuntzan. Alegia, zein komunitatetan kokatzen den sortzailea, eta zer nolako bortxa egiten dion bere gizarteari aukeratu duen hizkuntzak.

"Esan genezake, zentzu honetan, hots, *erdara* hitzaren zentzurik zehatzenean, Martin Ugaldek ez duela erdaraz idazten. Bi hizkuntza erabili ditu komunikazio artistikorako, baina ez nahasian edo gaiaren arabera hartuak. Aukera zehatza egin izan du beti gure idazleak bere etortia ubideratzerakoan, Marakaiboko golkoari gaztelania ez europar bat emanez. Bizkaikoari euskara ahaleginez gorde eta landu bat ixuriz".

1969an Euskal Herrira itzuli, eta Venezuelako hizkera jarioitsuaz kontatzen dituen hementengo bi istorio, *El mar es una orilla muy larga* ipuina eta *Las Brujas de Sorjin* nobela ematen ditu Izagirrek bi kode desberdin horien eremu autonomoak (giza errealitatea nongo, hizkuntza halako) errepetatu ez dituzten testuzat (Salbuespen erlatiboak, hala ere, eta berriro ere Martin Ugalderen beraren erabakia ikusten da horretan: *El mar es una orilla muy larga* ipuina *Itxasoa ur-bazter luzea da* bihurtu zuen Dionisio Amundarainek. Izan zen *Las brujas de Sorjin* euskaratzeko asmorik ere).

Eta Koldo Izagirrek bi kodeei buruzkoa laburbiltzen du:

"Bi idazle batean beraz. Ez bata bestearen morroi. Ez elkarren itzultzaile. Ez bekaizti. Esti-lo eta gai desberdinak darabiltzatela bieki. Esku bana hizkuntzako. Idazle bana mundu bitan, autonomo eta zehatz".

Izagirrerentari ezer eranstekotan, *idazle bana mundu bitan* horretako bi idazleen eta bi idazle horiek irudikatutako bi munduen argazkietako antzak eta desberdintasunak lirareke aztergai. Lana nekeza da (eta irristagarria), konparazioa baitu oinarri. Jario literarioari erreparaturik, zilegi litzaidake esatea Venezuelako pertsonaien galeria, hango lurraldeari darion bero sapa, orduko ipuinen indar iradokitzaillea *belduagoak* direla euskaraz emandakoak baino. Bego esana. Baina ez da zuzena (eta bada gaiztoa ere): erkaketa horretan bi errealitate parekotasat jotzen dira Hego Amerikako espaineraren tradizio literarioa (nortasun propioaren sokari tiraka literatura espainiarren soka-tira etengabea) eta euskalduna. Martin Ugaldek hona itzultitakoan aurkitu zuen euskara literarioaren baliagarritasuna ez zen Venezuelako bera, eta ez zen hango idazleen parekoa idazleok ematen genuen (eta dugun) maila, eta ezta gure gudi honi tiratzeko orduan ezinbesteko garrantzia duen irakurleen sintonia ere. Hango pertsonaien galeria, telurismoa eta iradokizuna *belduagoak* badira, tradizio handi baten eraginez da, eta ez Martin Ugalderen borondate soilez. Eta andoaindarraren euskal sena literarioari erreparatzen badiogu, *ad intra* jokatu behar dugu irizpideetan, eta hark euskal literaturari egin dion ekarria azerttu: idazle-bokazioaren gardentasuna, ipuinaren autonomia, pertsonaien galeria, narrazioaren ikuspuntua, eta hori guztia ahularenaganako begirunez emana (sufritzen duen gizakiarengandik beti hain hurbil).

MAMUXEL HANDI BATZUK BALIRA BEZALA

- "Txori-sail bat igaro zen txioka hegoaldera.
"Beldurgarria da kanposantu bat egun txintan!
"Dena jaiotzera doan bat-batean hilobia besterik aldamenean ez ikusteak halako nahigabe izugarri bat ematen du.
"Halako batean, gudari talde, txapelgotri, txapelbeltz, alkandora urdin, militar, meztatik aterata baletoz bezala, hizketan.
"Zigarroak piztu, eta panteoi baten ondoan ordu erdi bat gutxienez egon ziren.
"Egun hori-gorria sortaldetik igotzen hasi zen.
"Eta halako batean, kamioi bat. Beste militar eta alkandora urdin mordo bat jaitsi zen bertatik, eta agindu hots gogor batzuk entzun genituen.
"Gero, amets bat balitz bezala!
"Kapilatxoaren horma kontra gizonak (zortzi ziren) jarri, eta atzeratsuago, baina bertan, haserre gabe zeuden beste hamar bat gizonak:
"—Pan-Pan!...
"Gizonak, mamuxel handi batzuk balira bezala, zapla!
"Alde batekoak erori beharrean, besteakoak erori izan baziren, berdin irudituko zitzaigun guri.
"Nor zen hango epaile?
"Nor eraile?
"Fusilak zituztenek al zuren arrazoi?
"Eta Jaungoikoa, non ote zen?
"Han inguruan ziren txori guztiek habiak utzi, eta norabait ihesi joan ziren txio-txioka".
(*Gizerailtza* ipuinetik hautatua)

MUGA

Gora-behera bitxitzat hartuko du askok; hainbatek ez dio, beharbada, inolako garrantzirik emango, baina muga ikusten da Martin Ugalderen etxeko leihotik.

Bidasoaz beste egitea ez da Ugalderentzat erbestea, Unamunoren irudi famatuak (Hendaiatik *Espainiari* begira) besterik iradoki badezake ere: Bidasoa ibaiaren bokaleak amatasunez besarkatzen ditu bi ertzak bere altzo oparoan, eta besarkada horrek biziberritzen du egunero Ugalderen itxaropena.

NOBELAGILE

Gerra Zibilarekin zerikusi zuzena duten bi gai hautatu ditu Martin Ugaldek bere bi nobelatarako: sator modura bizi izan diren gerra ondorengo ezkuratuena (*Las brujas de Sorjin*) eta erbestealdi luze baten ondorengo itzulera (*Itzulera baten historia*). Teknikari dagokionez, ikuspuntuaren etengabeko joan-etorria azpimarratuko nuke gaztelaniazkoan, egunerokotasunaren hari narratzailea bigarrenean (ipuinetan ederki landutako teknikak biak). Gaiari dagokionez, Ugalderen nobeletako erbesteratutako horien kontakizunek Martin Ugaldek hogeita bi urte luzez gordetako itxaropen bera dute bizigai:

"Yo, al volver, no quería vivir del pasado, sino para preparar el futuro".

RIKARDO ARREGI

Euskal Herrira itzuli zenean, Rikardo Arregi izan zen agurtu ahal izan zuen lehendabiziko per-

tsonetako bat. Aitzin-topaketa adierazgarria, Ugalde bera antzematen hasita zegoena pertsonifikatzen baitzuen Rikardo Arregik: euskalgintzaren panorama ez zen jada Ugaldek alde egiterakoan utzi zuen bezalakoa; euskal kulturari ezagutu zion iragan mitifikatuarekiko jarrera ere gainditura zegoen; idazle gazteak nagusi ziren literaturgintzaren eremuan... Eta hala ere, *euskalzaleen jainkoa* hil beharra zegoen.

SARIAK

Un real de sueño sobre un andamio: Caracaseko El Nacional egunkariaren Narrazio Laburren Saria.

Las manos grandes de la niebla: Madrideko Premio Sésamo saria.

El mar es una orilla muy larga: Madrideko Café Gijón sarian finalista.

Erregeetako izpiritu beltzarana: Arabako Ignacio Aldecoa saria.

Mugarri galduen itsumundua: Irun Hiriko ipuin saria.

Itzulera baten historia: Eusko Jaurlaritzaren Jon Mirande Nobela Saria.

Pedrotxo. Euskaltzaindiaren Txomin Agirre Nobela Saria.

Sari asko eta garrantzitsuak izanagatik ere, Martin Ugaldek aspaldiko bat du, ordea, gogoangarriena: Caracaseko *Eusko Etxea* berriaren inaugurazioan Jose Antonio Agirrearen eskutik jaso zuen urrezko domina *Gizeraitza* ipuinarengatik.

SIMON BOLIVAR

Askatasun pertsonalaren eta herrien askatasun-eskubideen aldeko erudutzat dauka Ugaldek Simon Bolivar. Sarritan irtetzen dira hari buruzko

aipuak Martinen ahotik eta lumatik. Hari eskainiak ditu artikuluko bat baino gehiago. Simon Bolivar du ardatz talaia birxi bezain interesgarri batetik (askatzailea bizi izandako etxean perspektibatik) tajututako *Bajo estos techos* saioak ere.

Estimutan ditu, bada, *libertadorearen* maila politikoko eta militarra. Estimutan du, baita ere, haren sendotasun kulturala. Horren adibidezat gerta bedi Ugaldek berak *Bajo estos techos* saioan kontatzen duen Simon Bolivarren anekdota bat. Joaquin Mier izeneko burkide baten etxean ostatu harturik, Bolivarrek etxeko liburu ez galderu omen zion. Mier jauna desenkusatu egin omen zitzaion, bere liburutegi umilaren lotsaz nonbait. Bolivarrek, aporetatik bi liburu harturik, liburutegiari buruzko oneritzia agertu omen zion Mier jaunari:

—¡Cómo! Aquí tiene usted la historia de la humanidad: aquí está *Gil Blas*, el hombre tal cual es; aquí tiene usted al *Quijote*, el hombre como debiera ser.

TELURISMOA

Martinen Venezuelari buruzko ikuspegia, han girotutako ipuin eta idatzietan agertzen dena, guztiz telurikoa da, lurrari itsatsia dago, eta Martinen ipuinetako pertsonaiei ere telurismoa darie giza atal guztietatik.

"El hombre se paró.

"Al borde del camino, quieto, resignado, parecía una planta fija en la tierra. O un peleele. Se quitó despacio su sombrero de alas caídas.

"—¿Cojo pa'las Minas de Pao o pa'Sabaneta del medio? —se preguntó.

"Estaba de cara a los dos caminos. A sus pies yacía un saco agujereado y flaco, como desmoronado, pegado al polvo de la carretera. Así era también su ropa, o su desnudez. Los ojos grandes de alucinado abarcaron como una síntesis digerida todo el significado de esta trilogía simbólica del saco, el camino y sus plantas miserables de hombre pegado a su polvo. Después se volteó y se puso a escuchar un lejano ruido de motor".

(*El hombre se calló y dijo... ipuinetik*)

UNAMUNO

Ama gaxo dago antzerki-lanak (Caracas, 1964) euskara du gai nagusi. Ugaldek ama gaxo baten moduan irudikatzen du euskara, eta liburuxka horretan garbi ageri da handik bi urtera, *Unamuno y el vasuence* izeneko saioan, Unamunoren aurka garaturako duen *leitmotiv* nagusietako bat: nire hizkuntza (nire ama) gaixo egon daiteke, historia eta lustre handirik gabea ere izan daiteke, arazoak ere izan ditzake mundu modernora egokitzeko, baina arrazoi horiek aski al dira hizkuntza (ama) baztertu, baltsamatu eta hilobiratzeke, Unamunok euskararekin egin dezagula eskatzen digun bezala?

Salbatore Mitxelena *Unamuno eta Abendats* saioa idatzi eta handik hamar urte doi, Martin Ugaldek *Unamuno y el vasuence* idatzi zuen. Bi obren arteko paralelismoak handiak badira ere, Martin Ugalderenak, Mitxelenaenak ez bezala, euskararen auzia du ardatz eta gai bakar. Distantzia geografikoa eta harreman kulturalak oro gale-razten zituen frankismo garaiko giro politikoa kon-

tutan harturik, harrigarriak dira Ugaldek dituen iturri dokumentalak, hango eta hemengo material asko eta asko erabiltzen baitu bere lanean.

Liburuaren hasiera-hasierarik harritzen gaituen elementu bat liburuaren beraren definizioa da: *Contra-ensayo* (Ugalderen ohiko jarriera izan da non dagoen eta zein asmo dituen abisatze hori). Guillermo de Torre-ren hitz batzuk baliatzen ditu bere saioaren tonu polemikazalea zuritzeko: "...para comprender a Unamuno no hay que acercarse a él con actitud incondicional, antes bien, con talante polémico, crítico, semejante al que él mismo adoptaba frente a los demás".

Gaur ere aktualiterik galdu ez duen Unamunoren kontrako erronka borondatestu batekin amaitzen du Martin Ugaldek bere saioa:

"Los vascos de nuestra generación estamos dispuestos a demostrar que la lengua vasca, además de tener gramática y ser capaz de crear literatura, es tan apta para su desarrollo como cualquier otra.

"Y este es el reto que aceptamos hoy a don Miguel".

VENEZUELA

Venezuelari buruzko Martinen lehendabiziko oroitzapenek txokolate-usaina dute iturri, Andoainen bizi zela *Nelia* markako txokolate-tabletetan zetozen kromoetako batean ikusi baitzituen lehendabizikoz Venezuela izena, Venezuelako itsasertzearen lerroa, Venezuelako ezaugarri nagusiak... Gero etorriko ziren eskolako hormetan zintzilikaturiko mapak eta geografiko ikasgaiak.

Oroitzen xume horiek ez zuten Martinen memorian arrasto berezirik urratzeko motibo handirik. Ez da, ordea, sekula jakiten: bizitzak, ustekabeko norabideren bat harturik, inork aurreikusiz ezin zezakeen etekina eman lezake. Ugalderean zuelan aurkitu zuela Euskal Herria inolaz ere arnastu ezin zuen sena artistikoa, hitzaren literatura zentzua.

Euskaldunok baino ostatu atseginagoa eta erosoagoa eskaintzen omen diote venezuelarrek irudimenari. Europak, Ugalderean ustez, mundu egina goa dauka, baina hegoamerikarren gizarteak ore homogeneo bat osatu gabe daukenez, ametsak gordeleku handiagoa omen dute hangoen eguneroko bizitzan. Eroapen malguko denbora behaketarako:

“No hay relojes para medir el tiempo que componer, porque ¿quién gana al sol en éso?”.

Literaturarena ez da, beraz, begirada soil errutinatsua, ikusteko molde berezi bat baizik, eta molde hori bereganatzen ikasi zuten Ugalderek Venezuelan. Begi bereziak, paisaia jakin batean hazi eta ederrutako hizkeraz paisaia horren berri emateko:

“Médanos de arena caliente, con su eterna brisa peinando cujés y acariciando espinas de cactus y otras matas que nacen y mueren sin apenar conseguir despegarse de la arena”.

Belarri bereziak, bertakoez hazi eta edertutako hizkeraz bertakoen berri emateko:

“Visto desde arriba, no hay hombre grande. Las carreteras son ríos móviles de lata al sol. Quien ha forjado esa lata y la ha puesto a brillar

es el hombre, ese puntico que corre en zig-zag sorteando los obstáculos que ha creado él mismo. Las rayas rectas que rompen la ciudad en pedazos las ha trazado el punto cuando se ha puesto a mover a una velocidad nueva.

“Pero hay caminos rectos que no conducen a ninguna parte”.

Eta bihotz berezia, bertakoen hizkerarekin bertakoen sufrimendua deskribatzeko:

“Los tres hombres percibieron la sacudida del mundo común de su andamio y midieron con ojos largos de miedo el camino sin huellas por donde se fue Camilo hacía un mes”.

Ugalderean begiek hango argia ikusten eta hango jendea ulertzen ikasi zuten. Horren lekukotzat hartu behar dugu Ugaldere buruz Caracas-eko *El Nacional* egunkariako Guillermo Meneses kazetariak idatzitakoa (seguru asko Ugaldere sekula bota dioten lorerik ederrena):

“Sus relatos me parecieron excelentes. Es curioso cómo se venezolaniza usted, y cómo, al mismo tiempo, guarda su fondo vasco”.

Venezuelatik itzulita gero ere, herri harenganako maitasuna gordetzen du Ugalderek. Eta maitasun horrek maitarean etorkizuna du kezka, Ugalderean ustetan Venezuelak ez baitu hain urte gutxitan jasotako aurrerapen tekniko eta kulturalak hausnartzeko betarik izan.

Eskrupulorik gabeko klase espekulatzaile eta ustelduaren izurria erantsi behar omen zaio garapen lasterregi batek eragindako bertigoari.

“Talento sin probidad es un azote”, Bolívar zaharrak aspaldi sententziatu zuen bezala.

ZAHARTZAROA

Martin Ugaldek batasun tematiko baten hariaz josiriko ipuin-liburuak maite ditu. Gerra garaiko oroitzapenak batean, inmigrazioa bestean, telurismoa harako hartan...

Zahartzaroa gogoan zuela idatzitakoak dira, berriz, *Mantal urdina* bildumako ipuinak. Carcasen zeuden Martinen gurasoak. Bertara joan, gaizki zeudela ikusi, eta berarekin ekarri zituen. Egokiera ezin hobea izan zuen bere gurasoen zahardadea ikusirik berea prestatzeko:

"...Ba ote daki adinak hainbeste makurtu duen pertsonak zaharduratik zaharkeriara dagoen aldea bereizten? Noiz den zaharkizunaren aberatasuna, ardoak hartzen duenaren gisakoa, eta ardoa, edo pertsona hori, noiz den zaharmintzerako bidean abiatua?" (*Mantal urdina*)

ZUBIGINTZA

Martin Ugalderi behin baino gehiagotan egokitu zaio bitartekari-lana egitea, beti ere euskaldunon arteko gatazkak arintzeko ahaleaginean: "Alderdikeria itsuak uxatzen, lan polita dugu geure aurrean!". *Ekin* gazte-taldeak, EAJ utzirik, bere bidea hartu zuenean. Edo arestiko glosetan ikusiak ditugun Euskara Batuari buruzko eztabaidan; eta *Egunkari*ako sorrera-garaietako bidegurutzetan...

Zubigintzaren aldeko hitzak entzun izan zaizkio beti Martin Ugalderi, eta andoaindarrak zubigintzan erre izan ditu bere nekeak, euskaldunen sakabanaketaren kezkek bizi-mindu izan bai-

tu. Bere tratuaren samurra irizpideen trinkotasunarekin uzartzen dakien izakera emankorrak izango du horrekin zer-ikusirik:

"Ez dakit urte faltak edo urte soberak hontan zer ikusirik baduen. Dena dela, horregatik ez diogu guretako bakoitzak uste duenari hil arte eutsi behar. Besteekaz gauzak ikusi, aztertu eta erabakitzen ikasi behar dugu, eta erabaki horiek hartu eta gero amor ematen ere bai".

GLOSEN AURKIBIDEA

- 9 ASKATASUNA
9 AZAROAK HAMAIKA,
SAN MARTIN EGUNA
10 BURUNTZA HARTU DUTE!
12 DOAN
13 EGIA EZ DA KAXA BAT
15 ERBESTEA
16 «ERRITAR»
16 ESKAINTZAK
17 ESKOLA INPROBISATU BAT
18 ESKUTIK HARTUTA,
ZAPIAK AIREAN
19 EUSKARA BATUA
22 FRANCO BIZI DEN ARTEAN...
23 GRAMATIKA
24 HEGO AMERIKAKO
LITERATURAREN EZTANDA
25 HENDAIAKO ZUBIAREN LUZEA!
26 HERRIALDERAT
ITZULIZ USU BEGIAK
27 IITZALLEAK
29 IRAKURLE BATEN HASTAPENAK
31 ITZULERA BATEN HISTORIA
32 KAZETARI BATEN AMETSA:
EUSKALDUNON EGUNKARIA
37 LEKUAN LEKUKO
40 MAMUXEL HANDI BATZUK
41 MUGA
41 NOBELAGILE
41 RIKARDO ARREGI
42 SARIAK
42 SIMON BOLIVAR
43 TELURISMOA
44 UNAMUNO
45 VENEZUELA
48 ZAHARTZAROA
48 ZUBIGINTZA